

Martxoak 30eko aktan jasotakoa.

Lan taldeak egindako lan plangintza proposamena eta horren kudeaketa.

“ Bileran honen helburuak: lan taldeak aurreratutako lanak aurkeztea, diren zalantzak argitzea eta hurrengo urratsak elkarrekin finkatzea izan dira. Lanari ekin aurretik itxiera fase hau bukatutakoan Foroaren etorkizuna hitz egin beharko dugula adierazten da. Beraz, lanarekin hasteko itxiera fase honetan erabiltzen ari den eskema azaldu da. Eskema honen puntu bakoitzak dokumentu bat lantzea suposatzen du. Horietako batzuk lan taldeak lantzen jarraituko ditu, beste batzuk norberak landu beharko ditu eta beste batzuk bileretan elkarrekin landuko dira. Hona hemen aurkezturiko eta bileran onarturiko eskema eta horren inguruko xehetasunak:

<i>Gaiak/Dokumentuak</i>	<i>Nola landu</i>	<i>Onarpen maila</i>
<i>Foroaren Hastapenak</i>	<i>Lantaldeak zirriborroa landu Foroak osatu eta zuzendu</i>	<i>Onarpena</i>
<i>Foroaren ibilbidea</i>	<i>Lantaldeak zirriborroa landu Foroak osatu eta zuzendu</i>	<i>Onarpena</i>
<i>Kontakizun poliedrikoa</i>	<i>Norberak landuko du berea</i>	<i>Onarpena</i>
<i>Kontakizun etikoa</i>	<i>Foroan</i>	<i>Adostasuna</i>
<i>Bizikidetzaren oinarriak</i>	<i>Foroan</i>	<i>Jaso: partekatzen duguna eta partekatzen ez duguna</i>